

**Xedea**

- Minusbaliatuendako ibilgailua aparkatzeko baimen txartela bideratzea.

**Eskaera baldintzak**

- Eskaera epea: Ez dago eperik

**Onuradunak**

- Onuradunak edo erabiltzaileak:

- Minusbaliotasuna aitortua duen edozein pertsona fisiko (betiere, minusbaliotasun horren barnean garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasun handiak dituela adierazten bada), edo minusbaliatua batetik bestera eraman behar izanen duen pertsona.

- Minusbaliotasun ziurtagirian garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasun maila adierazten ez bada, Udaltzaingoa kasu bakoitza aztertuko du, eta horren baitan aparkatzeko txartela emanen edo ukatuko du.

**Eskakizunak**

- Minusbaliatu bakoitzak txartel bakarra izanen du.

**Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

- Eskaera inprimakia

- Minusbaliotasun egiaztagiria

- Minusbaliatuaren NAren fotokopia

- Zirkulazio baimena

- Gida baimena

- Agirietarako neurriko argazkia

- Gidaria minusbaliatua bera ez bada, ibilgailua gidatuko duenaren NAren fotokopia eta gida baimena ere aurkeztu beharko dira.

**Aurkezteko lekua**

Zizur Nagusiko Udaletxea

**Zenbatekoa**

- Doakoa

**Bestelako datuak**

- Bideratzeko epea: 10 egunekoa

**Organo erabakitzailea**

Zizur Nagusiko Udaltzaingoa

**Oharrak**

-Txartelaren iraunaldi epea bukatuta, ez du baliorik izanen, eta egin zen lekuan entregatu beharko da; hala badagokio, berritu egingen da.

- Txartela ibilgailuaren aitzinaldean paratuko da, aurrealdea kanpoaldetik argi eta garbi ikusteko moduan.
- Minusbaliatuendako gordeta dauden lekuetan aparkatu ahal izanen du denbora mugarik gabe.
- Baimen horretan oinarrituta, inoiz ezin izanen da ibilgailua minusbaliatuendako lekuetan aparkatu txartelaren titularra ibilgailuan ez badao.
- Txartel honek ez du baimenik ematen aparkaldi mugatuko guneeetan (eremu urdina) eta aparkaleku mugatuetan aparkatzeko.
- Txartela egin zen udalerrian ez den beste batean aparkatzen denean, udalerrri horretan dauden arauak eskatu beharko ditu.

**Iraunaldia** 2008/03/13